

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1879

AGINDUA, 2025eko apirilaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2024-2025 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziatarako deialdia egiten duena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak Batxilergoko irakaskuntzen arauketa berri bat ezartzen du, prestakuntza, adimen- eta giza heldutasuna, ezagutzak eta trebetasunak emateko, ikasleek gizarte-funtzioak gara ditzaten eta bizitza aktiboari erantzukizunez eta gaitasunez ekin diezaioten.

Hauek dira arau-oinarriak ikastetxeek beren hezkuntza eta curriculum-proiektuak egiteko: 23/2022 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen, eta 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoko curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Batzilergoan oinarritzko batasuna dauka prestakuntza orokorrak, jakintzagai komunak lantzen direlako, baina nolabaiteko berezitasuna eskuratzeko aukera ere ematen du, gustuko modalitateak aukeratuz hezkuntza-etapa honen egituratik. Gainera, ondorengo ikasketetarako berariazko prestakuntza ematen du, izan unibertsitate-ikasketak, goi-mailako lanbide-heziketako zikloak edo arte-ikasketetakoak, baita lan-munduan sartzeko aukera ere.

Batzilergoko ikasketak amaitzean, ikasleek goi-mailako ikasketak hasi aurreko prestakuntza-etapa itxi egin behar dute, eta Batxilergoko titulua lortu. Betidanik, Batxilergoko Sari Bereziak antolatu dira, ibilbide akademiko bikaina egin duten ikasleen ahalegina eta dedikazioa aitortzeko eta hurrengoentzako pizgarri izateko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako Batxilergoko Sari Nazionalak arautzen dituen maiatzaren 4ko ECD/482/2018 Aginduak xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak badu eskumenik Batxilergoko Sari Bereziak emateko, deialdi-aginduak berak ezartzen dituen baldintzetan.

2024ko urtarrilaren 30eko Aginduak Batxilergoko Sari Bereziak arautzen ditu eta horiek Euskal Autonomia Erkidegoan emateko baldintzak ezartzen ditu. Beraz, egokia da agindu hau idaztea, 2024-2025 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziatarako deialdia egiteko.

Deialdi honen oinarri den dirulaguntza Hezkuntza Sailaren 2025rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

Bat etorritz dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 21eko 20/2023 Legean jasotako xedapenekin nahiz Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak 2023ko otsailaren 13an emandako Aginduarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta daudela egiaztatzeari eta dirulaguntzak itzultzeari buruz), eta aurrekontu-zuzkidura nahikoa badagoenez Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legeak onartutako kredituak aintzakotzat hartuta, Hezkuntza Politiketako Sailburuordeak proposatuta, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.— 2024-2025 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziak deitzea eta onartzea, agindu honen I. eranskinean jasotako oinarriekin bat etorritik.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan prozedurari buruz aurreikusi ez den guztirako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dezakete Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Bat etorritik Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21ekoarekin, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok «sariak eta lehiaketak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira. Tratamendu-jarduera horren arduraduna Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritza da. Datuak babesteko ordezkaria: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/datuak-babesteko-ordezkaria/hasiera/>.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 8a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

I ERANSKINA

2024-2025 IKASTURTEKO BATXILERGOKO SARI BEREZIEN DEIALDIAREN OINARRI
ARAUTZAILEAK

Lehenengoa.— Xedea eta aplikazio-eremua

2024-2025 ikasturterako Batxilergoko 16 Sari Berezitarako deia da hau, sariak deialdi honetan bertan ezarritako baldintzetan emateko. Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritza da deialdi honen kudeaketaz eta izapidetzeaz arduratzen den organoa.

Bigarrena.— Ikasleek proba egiteko bete beharreko baldintzak

1.— Batxilergoko Sari Bereziak jasotzeko moduan izango dira ikasleak baldin ondo betetzen badituzte Hezkuntzako sailburuak Batxilergoko Sari Bereziak arautzeko eta sari horiek emateko baldintzak ezartzeko 2024ko urtarrilaren 30ean eman zuen Agindua 3. artikuluan ezarritako betekizunak (EHAA, 2024-02-14).

2.— Baldintza akademikoak ofizioz egiaztatuko dituzte ikastetxeek, ikasleak Hezkuntza Sailak horretarako duen aplikazio informatikoan inskribatu ahala.

Hirugarrena.— Izena emateko prozedura eta epea

1.— Deialdi honetan aurreikusitako datak eta jarduerak II. eranskinen egutegian datoz.

2.— Batxilergoko bigarren mailako amaierako ebaluazio-saioa egin eta ikasleei amaierako kalifikazioak jakinarazi ondoren, ikastetxeek Batxilergoko Sari Bereziak aurkezteko aukeraren berri emango diete agindu honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten ikasleei.

3.— Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen 2024ko urtarrilaren 30eko Agindua ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleek, Batxilergoko Sari Bereziak eskuratu nahi badituzte, beraien ikastetxeko idazkaritzari helaraziko diote izena emateko eskabidea (III. eranskinen ereduak), behar bezala sinatuta, honako hauek egiaztatzeko:

a) Ez dagoela Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean aurreikusitako egoeretako batean, besteak beste:

- Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea.
- Zigor eta administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere ez izatea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

b) Onartzen dituela eskatutako dirulaguntza xede den deialdiaren oinarriak.

c) Egiazkoak direla eskabidean adierazitako datuak.

Prozedura hau kudeatzen duen organoak ofizioz egiaztatuko du ikasleak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Hala ere, ikasleak badu berariaz uko egiterik baimen horri; hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

4.– Ikastetxeko idazkaritzak sarrera-erregistroa emango dio eskabideari, eta ikastetxeko zuzendariak digitalki sinatutako kopia bat emango dio ikasleari. Idazkaritza arduratuko da Hezkuntza Sailak horretarako ezarri duen aplikazioaren bidez izapidetzeaz.

5.– Eskatzaile bakoitzak sinatutako inskripzio-formularioa ikastetxeko idazkaritzan gordeko da, probako epaimahaiaren eskura. Epaimahaiak dokumentazio hori edozein unetan eska dezake, bai probak irauten duen bitartean bai proba amaitu ondoren. Era berean, ikastetxeak ziurtagiri akademikoa erantsiko dio eskabideari, behar bezala beteta eta ikastetxeko zuzendariak sinatuta.

6.– Desgaitasunen bat duten ikasleek, proba egiteko egokitzapen jakin bat behar badute, III. eranskinean aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera.

7.– II. eranskinean zehazten den egunean argitaratuko da Hezkuntza Sailaren web orrian (<https://www.euskadi.eus/batxilergoko-sari-bereziak/web01-a3hakade/eu/> helbidean), onartutako behin-behineko zerrenda, baztertutakoena (baztertze arrazoia zehaztuta), eta akatsak edo hutsak zuzentzeko epea adieraziz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua arabera.

8.– Epaimahaiburuari zuzendutako akatsak edo hutsak zuzentzeko epea amaitu ondoren, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da onartutako behin-behineko zerrenda, bai eta, halakorik balego, baztertuen behin-behineko zerrenda ere, baztertze arrazoia adierazita.

Laugarrena.– Epaimahaia

1.– Funtzionamendu-arauak betetzeko eta probaren ebaluazioa egiteko, epaimahai bat eratuko da, kide hauek izango dituenak:

- Epaimahaiburu gisa jardungo duen ikuskari bat.
- Epaimahaiko idazkari gisa jardungo duen ikuskari bat.
- 19 irakasle funtzionario, proban ebaluatu beharreko gai guztietan jakitun direnak.

2.– Epaimahaiaren eraketa jendaurrean jarriko da Hezkuntza Sailaren (<https://www.euskadi.eus/batxilergoko-sari-bereziak/web01-a3hakade/eu/>) II. eranskinean agertzen den probaren eguna baino 15 egun lehenago.

3.– Ikasleek epaimahaiko kideak errefusatzeko eskubidea balia dezakete prozedura izapidetzen ari den edozein unetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.– Probaren edukia eta balorazioa

Proba, euskaraz edo gaztelaniaz egin daiteke, aukeran (eskabidean adierazita). Epaimahaiak prestatuko du proba, eta honela egituratuko dira:

a) Lehenengo ariketa: Modalitateari dagokion derrigorrezko jakintzagaia: idatziz ebaztea Batxilergoko bigarren mailako modalitateko derrigorrezko jakintzagaiaren edukiei buruzko galderak edo ariketa praktikoak (izena emateko eskabidearen III. eranskinekoak).

b) Bigarren ariketa:

1.– Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura: testu orokor, zientifiko edo literario bati buruzko idazlana eta/edo iruzkina, Batxilergoko bigarren mailako gaztelaniakoa edo euskarakoa, parte-hartzaileak izena emateko eskabidean egindako aukeraren arabera.

2.– Atzerriko hizkuntza: Batxilergoko bigarren mailan derrigorrezkoa den atzerriko hizkuntzako testu orokor, zientifiko edo literario bati buruzko idazlana eta/edo iruzkina. Ariketa dagokion hizkuntzan egingo da. Ezin izango da hiztegiak erabili.

3.– Agindu honen 6.5 oinarrian ezarritakoari kalte ez egitekotan, ariketetan honako hauek baloratuko dira: erantzunak zuzenak izatea, azalpena eta/edo ekoizpena argia eta kalitatezkoa izatea, ondo egituratuta egotea, hiztegia menderatuta duen eta hizkuntza zuzena izatea.

4.– Ez da inolako aldaketarik onartuko hautagaiak izena emateko inprimakian aldeztu aurretik hautatu dituen probako jakintzagai edo aukeretan.

5.– Probako ariketa bakoitza 0 eta 10 puntu artean kalifikatuko da, bi dezimalekin gehienez ere. Probaren azken kalifikazioa honela kalkulatu da: lehenengo zatiko ariketan (modalitateko nahitaezko jakintzagaia) lortutako kalifikazioa bider bi, gehi bigarren zatiko ariketa bakoitzean lortutako kalifikazioen batura.

6.– Saria eskuratuko badute, hautagaiek gutxienez 5 puntu lortu beharko dituzte ariketa bakoitzean, eta, orokorrean, 32 puntutik gorako kalifikazioa.

7.– Proban kalifikazio altuena lortu duten hautagaiei emango zaizkie sariak.

8.– Berdinketarik egonez gero, lehenengo, bigarren eta hirugarren ariketetan lortutako puntuaziorik onena hartuko da kontuan, hurrenkera horretan. Berdinketak bere horretan badirau, Batxilergoko batez besteko notaren bidez ebatziko da, eta, hala ere, berdinduta badago, zozketa bidez ebatziko da, eta epaimahaiburuak horren berri emango du.

9.– Ariketak anonimoak izango dira, eta epaimahaiburuak ere neurri egokiak hartu beharko ditu anonimotasuna ziurtatzeko.

10.– Deialdi honetan, haxe izango da ariketen denbora-banaketa:

Lehen zatia:	90 minutu.
Etenaldia:	30 minutu.
Bigarren zatia:	120 minutu.

Seigarrena.– Probak egitea.

1.– Proba bakarra izango da EAEn, eta II. eranskinean ageri den egoitzan, egunean eta orduan egingo da.

2.– Proba egiteko, izangaiek NAN, AIZ edo Pasaportea aurkeztu beharko dute, bai eta probako ariketak egiteko behar diren tresnak ere, IV. eranskinean ezarritakoaren arabera.

3.– Epaimahaiak legezko gaitasuna du ariketetan jarraitu beharreko etika, errespetu eta ordena-arauak betetzen ez dituen ikaslea probatik kanpo uzteko. Baztertzeko, jakintzagai guztietan 0 puntu lortzea dakar.

4.– Hala ere, epaimahaiak komenigarri irizten badio, aurreko puntuetako edozein zehaztapen jakinaraziko du, behar besteko aurrerapenaz, jarraibide gehigarrien bidez, Hezkuntza Sailaren web-orrian.

5.– Proba egin aurretik, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko dira ariketa bakoitzaren ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

6.– Deialdi honi buruzko informazioa Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da:

<https://www.euskadi.eus/batxilergoko-sari-bereziak/web01-a3hakade/eu/>

Zazpigarrena.– Kalifikazioak argitaratzea

1.– Parte-hartzaileek Ikasgunearen bidez kontsultatu ahal izango dituzte emaitzak: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/>.

2.– Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta horiek emateko baldintzak ezartzen dituen urtarilaren 30eko Aginduak 7. artikuluan ezartzen duenez, behin-behineko kalifikazioei alegazioak egin dakizkieke kalifikazio horiek argitaratu eta bost egun balioduneko epean.

3.– Alegazioak eta/edo akatsak konpondu ondoren, saritutako izangaien proposamena argitaratuko da Hezkuntza Sailaren webgunean.

Zortzigarrena.– Ebazpena

1.– Deialdia Hezkuntza Politiketako Sailburuordeak ebatziko du, epaimahaiaren proposamena aintzat hartuta. Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean ez bada ebazpenik jakinarazi, eskabideak ezetsizat joko dira, Dirulaguntzen Araubideari buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoaren arabera. Sarituei ebazpena jakinarazteaz gain, ebazpen hori eta behin betiko zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko dira, denek horren berri izan dezaten.

2.– Jakinarazitako ebazpenaren aurka, edo ebazteko epea igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

II. ERANSKINA

JARDUEREN EGUTEGIA. 2024-2025 IKASTURTEA

Maiatzaren 1. hamabostaldia	2024-2025eko ikasturterako Batxilergoko Sari Bereziak deitzen dituen Agindua argitaratuko da EHAA
Maiatzaren 19tik 23ko 14:00ak arte	Hautaprobetan parte hartuko duten ikasleek izena emango dute Hezkuntza Sailaren web-orriko aplikazioan
Maiatzak 26	Probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Hezkuntzaren web-orrian
Ekainaren 9ko 10:00ak arte.	Probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrendaren kontrako alegazioak aurkeztuko dira
Ekainaren 9ko 13:00etan	Probetarako onartutako eta baztertutako ikasleen behin betiko zerrenda argitaratuko da
Ekainaren 9ko 14:00etan	Gelen eta eserlekuen zerrenda
Ekainak 12	Proba egitea: Bilboko Ingeniaritza Eskola Torres Quevedo Ingeniari plaza 1, 48013 Bilbo Ordutegia: Deia: 09:45 Lehen zatia: 10:00 – 11:30 Atsedena: 11:30 - 12:00 Bigarren zatia: 12:00 - 14:00
Ekainak 19	Behin-behineko kalifikazioak argitaratuko dira Norberaren noten kontsultatzeko aukera
Ekainaren 26ko 10:00ak arte	Behin-behineko kalifikazioen kontrako alegazioak aurkeztuko dira
Uztailak 1	Behin betiko kalifikazioak argitaratuko dira Norberaren noten kontsultatzeko aukera Ikasle saridunen proposamena egingo da
2025eko uztailaren 1tik aurrera	Hezkuntza Politiketako Sailburuordearen ebazpena argitaratuko da EHAA

III. ERANSKINA

IZENA EMATEKO ESKABIDEA

DATU PERTSONALAK			
NAN/AIZ		Jaioteguna: uu/hh/ee:	
Sexua: ☐ G ☐ E		Izena:	
1. abizena		2. abizena:	
Helbidea:		Batez besteko nota:	
Zk.:	Solairua:	Letra:	Lurralde Historikoa.
Udalerria:		PK:	Harremanetarako telefonoa:
ABISU TELEMATIKOETARAKO DATUAK			
Telefono mugikorra:		Posta elektronikoa:	Jakinarazpenetarako hizkuntza ☐ Euskara ☐ Gaztelera
EGINDAKO IKASKETAK			
Batxilergoko ikasketak zer ikastetxetan amaitu zituen:			
Lurralde Historikoa:		Udalerria:	PK:
Batxilergoko 2. mailan ikasitako atzerriko lehen hizkuntza			☐ Ingelesa ☐ Frantsesa ☐ Alemana
Batxilergoan ikasitako modalitatea		Zientziak eta Teknologia	
		Giza eta Gizarte Zientziak ☐ Giza Zientziak ☐ Gizarte Zientziak	
		Arteak: ☐ Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua. ☐ Musika eta Arte Eszenikoak	
		Orokorra	
PROBA ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN NAHI DUZUN			
☐ Gaztelania		☐ Euskara	
DESGAITASUNAGATIK AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA			
☐ Desgaitasun ziurtagiria		☐ Irizpen tekniko-fakultatiboa	
☐ Orientazio Zerbitzuaren txostena eta Berritzegunearen txostena			
☐ Beste egokitzapen mota bat (denbora eta bitartekoak). Zehaztu:			
PROBAREN LEHEN ZATIRAKO AUKERATUTAKO JAKINTZAGAIAK ADIERAZI MODALITATEAREN/IBILBIDEAREN BEREZKO JAKINTZAGAIA (Batxilergoko 2. mailan egina)			
☐ Matematika II	Zientziak eta Teknologia		
☐ Gizarte zientziei aplikatutako matematika II			
☐ Latina II	Humanitateak		
☐ Gizarte zientziei aplikatutako matematika II	Gizarte-zientziak		
☐ Marrazketa Artistikoa II	Arte Plastikoak, Irudia eta Diseinua		
☐ Arte Eszenikoak II	Musika eta Arte Eszenikoak		
☐ Analisi Musikala II			
☐ Zientzia orokorrak	Orokorra		
PROBAREN BIGARREN ZATIRAKO AUKERATUTAKO JAKINTZAGAIK			
A ariketa		B ariketa	
☐ Gaztelania eta Literatura II		☐ Ingelesa	
☐ Euskara eta Literatura II		☐ Frantsesa	
		☐ Alemana	

ESKATZEN DUT 2024-2025 ikasturteko Batxilergoko Sari Bereziak lortzeko probetan parte hartzea.

ADIERAZTEN DUT

- Eskabideko datuak egiazkoak direla.
- Batxilergoko Sari Bereziarako deialdiaren oinarriak onartzen ditudala.
- Ordainduta ditudala dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.
- Ez dudala jaso dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, eta ez daukadala horretarako ezgaitzen nauen legezko debekurik.

□ EZ DUT ONARTZEN prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzea zerga-betebeharren eta Ogasunarekinkoen ordainketan egunean nagoela ez nortasun-datuak egiaztatzea. (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 28/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikulua). Puntu hau markatuz gero, aipatutako ofiziozko egiaztapenaren aurka egiten zaionez, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak nik neuk aurkeztu beharko ditut.

Emandako datuetan funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo hutsak erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eragiten ditu; Administrazioak baditu egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak ditu.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa:

Zure datu pertsonalak tratatutakoan, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Sariak eta lehiaketak.

- **Arduraduna:** Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritza, Hezkuntza Saila
- **Helburua:** Batxilergoko Sari Bereziak: emaitza akademiko onenak izan dituzten ikasleak saritzea.
- **Legitimazioa:**
 - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoko misio bat betetzeko, edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzeko.
- **Hartzaileak:**
 - Hezkuntza Ministerioa, Berritzeguneak
- **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/).
- **Informazio osagarria:** Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/051300-cap2-eu.shtml

Araudia:

- **Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra**
(www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)
- **3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.**
(www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

.....(e) n, 202..... ko.....aren(e) (a) n.

AITA, AMA EDO LEGEZKO TUTOREA
(Ikasle adingabeen kasuan soilik)
Izpta.:

INTERESDUNA
Izpta.:

Eskaera honekin lotutako edozein kontsulta egiteko, ikasleak ikasten duen ikastetxera jo beharko du.

IV. ERANSKINA

AZTERKETA EGITEKO JARRAIBIDEAK ETA ZEHAZTAPENAK

Puntual agertu behar da, zorrotz.

Matrikula egin eta gero, ezingo da jakintzagairik aldatu.

Ikasle bakoitzak gela bat eta jarleku-zenbaki bat izango du, eta bertan egingo du azterketa. Gelan sartzean, bere jarlekua eta zenbakia zein diren esango zaio. Hori izango da bere lekua azterketa osoan zehar, probaren bi zatietan.

Ikasleak bere nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaporte) mahai gainean jarri beharko du, eta ikusgai egoteko moduan probak dirauen bitartean.

Lehenengo ariketa hasi baino lehen, ikasleei orri bana emango zaie: hor agertuko dira bere datu pertsonalak, zein jakintzagaitan matrikulatuta dagoen eta ariketa bakoitzean erabili beharko duen kodea. Azterketaren orrian, espazio bat dago kode hori jartzeko. Akatsen bat atzemanek gero, ikasleak berehala jakinarazi beharko dio Epaimahaiari.

Tinta beltzez edo urdinez egin behar dira ariketak, Epaimahaiak kontrakorik adierazi ezean.

Probaren konfidentzialtasuna ziurtatzeko, ezingo da izena idatzi ez inongo identifikazio-seinalerik utzi azterketa-orrian, aipatutako identifikazio-kodea izan ezik, harentzako gordetako lekuan. Jarraibide hori ez betetzeak hautagaia baztertzea ekarriko du.

Nahiz eta azterketa zurian itzuli, identifikazio-kodea jarrita beharko du. Azterketa hasi eta 15 minutu igaro arte, ezingo da ikasgelatik irten. Ariketa bakoitzaren hasierako 15 minutuak iraganda, ez zaio ikasle bakar bati ere sartzen utziko, Epaimahaiko buruak baimendutako salbuespen-kasuetan izan ezik.

Azterketaren bigarren zatian, hizkuntza ofizialeko ariketak –euskara/gaztelania– eta atzerriko hizkuntzakoak aparteko orrietan egin beharko dira.

Probaren jakintzagai bakoitzaren berezko ezaugarriak dagokienez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

– Gaztelania eta Literatura II, Euskara eta Literatura II eta Atzerriko Hizkuntza II: ezin da hizteirik erabili.

– Matematika II eta Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika II: kalkulagailu zientifikoa eta marrazketarako tresnak (erregela, konpasa...) erabiltzerik badago. Baimendutako kalkulagailuek ezin izango dute prestazio hauetako bakar bat ere eskaini: pantaila grafikoa; datuak transmititzeko aukera; programagarria izan; ekuazioak ebatzi; matrize-eragiketak egin; determinanteak, deribatuak eta integralak kalkulatu, eta datu alfanumerikoak gorde.

– Latina II: hiztegia erabiltzerik badago. Latinezko hiztegi batzuek gramatika-gehigarria izaten dute (deklinabide-taulak eta aditzak...). Baimenduta dago gehigarri hori erabiltzea; ez du axola hiztegian bertan txertatuta dagoen edo aparteko koadernotxo bat den. Gainera, aldi berean bi hiztegi erabiltzerik ere izango da: latina-gaztelania eta latina-euskara.

– Marrazketa Artistikoa II:

Derrigorrezko materiala: DIN A3-ko (29,7 cm x 42cm) paper zuria edo beste kolore bateko paper monokromoa, gogortasun ezberdinetako grafitozko arkatzak eta barrak, borragoma, ikatza, ikatza ezabatzeko goma berezia, trapuak eta teknika lehorrez aplikatzekoak diren koloreak (teknika lehorrak: diluitzailerik behar ez dutenak, ez urezkoak ez kimikoki eginda daudenak), ur-deposituak berez dituztelako pote gehigarriak behar ez dutenak izan ezik. Erregelak eta eskuairak. Beste material eta tresna mota batzuk, norberaren adierazpen-lehentasunaren arabera.

Baztertuta daude honakoak:

Disolbatzaile likido osagarriak edo kanpokoak behar dituzten teknikak (ura, alkohola, trementina, agoarrasa, disolbatzaile sintetikoak, etab.). Alabaina disolbatzailea berez erantsita daramaten materialak onartuta daude (errotuladoreak, pintzel puntako errotuladoreak, boligrafoak, etab.).

Ez da erabiliko kolarik ez finkatzailerik ez lurruntzearen bidez aplikagarriak diren beste produktu batzuk, ez material oso lurrunkorrik, ezta aurrez landutako paperik ere.

Era berean, ezingo da erabili erreferentziako irudirik, ez digitalik ez inprimaturik, ez badira justu azterketaren enuntziatuan agertzen direnak, eta ezingo da erabili gailu elektronikorik, telematiko finkorik edo mugikorrik.

– Analisi Musikala II: ez da berariazko inongo materialik behar proba egiteko.

–Arte Eszenikoak II: ez da berariazko inongo materialik behar proba egiteko.

–Zientzia orokorrak: ez da berariazko inongo materialik behar proba egiteko.

Probaren atal bakoitza amaitu eta gero, ikasleak eskua altxatuko du eta itxarongo du Epaimahaiko arduradunen batek azterketetan erabilitako orri guztiak (zirriborroak barne) jaso eta gelatik ateratzeko baimena eman arte. Azterketa zurian uzten bada ere bete behar da jarraibide hau.

Erabat debekatuta dago informazioa biltegiratu edo erreproduzitu dezaketen telefono mugikorrek eta tresna elektronikoak erabiltzea; kanporatzeko arrazoi izango da horiek erabiltzen saiatze hutsa.

Ariketetan jarraitu beharreko etika, errespetu eta ordena-arauak betetzen ez dituen probatik baztertzeko legezko gaitasuna du Epaimahaiak. Baztertzeak jakintzagai guztietan 0 kalifikazioa ateratzea dakar.

Behar badu, bertaratze-agiri bat eska diezaioke ikasleak Epaimahaiari.

OHARRA: saria eskuratzeko aukera izateko, ariketa bakoitzeko kalifikazioak 5,00 puntu edo gehiagokoa izan beharko du, eta 32 puntu baino gehiago lortu beharko dira probaren kalifikazio osoan. Ikasleren batek zurian itzultzen badu ariketa bat, 0 kalifikazioa emango zaio, eta, ondorioz, saria eskuratzeko aukera galduko du.